



Hezkuntza Ikuskaritza

Lanbide Heziketa

SALBUESPENAK, BALIOZKOTZEAK,
BALIOKIDETASUNAK ETA
HOMOLOGAZIOAK

2024ko Uztaila



Edukia

1. KAPITULUA. ARAUDIA	3
2. KAPITULUA. SALBUESPENAK	5
2.1 PRESTAKUNTZA ENPRESAN	5
2.2 E100 eta E200 INGELESA	6
2.2.1 Entzuteko desgaitasunena duten ikasleak	6
2.2.2 EAEko arauetan 24-25 ikasturterako E100 eta E200etarako aurreikusitako beste kasu batzuk .	7
3. KAPITULUA. BALIOKIDETASUNAK	8
4. KAPITULUA. HOMOLOGAZIOAK	10
5. KAPITULUA. GAINDITUTAKO MODULUEN KALIFIKAZIOAK LEKUALDATZEA	12
6. KAPITULUA. BALIOZKOTZEAK	13
6.1 659/2023 ERREGE DEKRETUAREN ONDORIOZKO GOGOETAK	13
6.2 ED BERRIETATIK ERATORRITAKO GOGOETAK	16
6.3 LOGSE-TIK ERATORRITAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZAK	19
6.4 LOE-TIK ERATORRITAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZAK	20
6.5 LOE-REN ZIKLOETAKO EAE-KO MODULU PROPIOAK BALIOZKOTZEA	21
6.6 ZIKLOEN ARTEKO BALIOZKOTZE “GURUTZATUAK”	21
7.- BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK ESKATZEA: OINARRIZKO ESKEMA	23
7.1 ALDERDI OROKORRAK	23
7.2 BALIOZKOTZEAK EBAZTEKO ESKUMENA	24
7.3 IZAPIDETZE-PROZEDURAK	25
7.4 EBAZTEKO PROZEDURA	27
7.5 BALIABIDEAK	28
7.6 BALIOZKOTZEETAN EDO SALBUESPENETAN ATZERA EGITEA EDO HORIEI UKO EGITEA	28
8. KAPITULUA. BALIOZKOTZEEN ETA SALBUESPENEN GAINEKO IRUZKINAK ETA ÑABARDURAK	30
9. KAPITULUA. GAITASUN-ATALEN ETA LOE-REN LANBIDE MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA, HORIEK BALIOZKOTZEKO	31
10. KAPITULUA. LANBIDE-MODULUEN ETA GAITASUN-ATALEN ELKARREKIKOTASUNA, HORIEK EGIAZTATZEKO	32

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan, Lanbide Heziketari buruzko araudi berria argitaratu da, eta, ondorioz, hainbat aldaketa ari dira txertatzen, apurka-apurka, ikastetxeen antolaketan. 2024-2025 ikasturtean bi aldaketa egingo dira: lehenengo mailetan Enplegarritasuna I irakasgaia ezarriko da eta lantokiko prestakuntzako (LP) modulua desagertuko da.

0156- Ingelesa eta 0179- Ingelesa kodea duten moduluak 0156- Ingeles profesionala eta 0179- Ingeles profesionala moduluak izango dira.

Dokumentu honen helburua da araudia modu homogeneoan interpretatzen laguntzea, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen baliozkotze eta salbuespenei buruzko zenbait alderdi argitu eta eguneratzea, eta, neurri berean, arauan jasota ez dauden baina zalantzak eta ikastetxeen kontsultak eragiten dituzten zenbait egoera zehaztea.

I. kapituluaren, aplikazio-araua eta indargabetutako araudia berrikusten dira.

Hurrengo kapituluaren, salbuespenak, baliokidetasunak, homologazioak eta baliozkotzeak jorratzen dira, bai eta ikastetxeen kudeatzeko bestelako oinarrizko prozedurak ere.

Dokumentuaren zehar, webgune interesgarrien estekak sartu dira.

Dokumentuaren amaieran, laburpen gisa, baliozkotze-taula batzuk ageri dira. Taula horiek egokitu egin beharko dira hurrengo ikasturteetan LHri buruzko lege berria ezartzen den neurrian; hortaz, taula horietan dagoen informazioa 2024-25 ikasturterako baino ez da.

Salbuespenak, baliozkotzeak eta kalifikazioen lekualdatzea matrikularen aplikazioan, aktetan eta ikaslearen espediente akademikoan erregistratu behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztaila

Xabier Balerdi Iraola

Hezkuntzako ikuskari nagusia

1. KAPITULUA. ARAUDIA

Gai horiei dagokienez, honako araudi hau aplikatu behar da:

1. 1085/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Espainiako hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako tituluetakoa lanbide-moduluen baliozkotzeak ezartzen dituena.
2. 3/2022 Legea, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzkoa (2022/04/01eko BOE, 78. zk.)
3. 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duena.
4. 498/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, oinarrizko Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
5. 499/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, erdi-mailako Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
6. 500/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, goi-mailako Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
7. 497/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Lanbide Heziketaren esparruan erdi-mailako eta goi-mailako espezializazio-ikastaroak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
8. 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, EAEko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena; otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua.
9. EAEko 86/2015 Dekretua.
10. 2017ko martxoaren 5etik aurrera argitaratutako tituluei buruzko errege-dekretuak (baliozkotzeak eranskinetan daude jasota).
11. 777/1998 Errege Dekretuaren II. eta III. eranskinak (apirilaren 30ekoa, Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren esparruan antolatze alderdi jakin batzuk garatzeko).

Honako araudi hau indargabetzen da:

1. 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituena, IV. eranskina izan ezik.
2. 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.
3. 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifikoko batzuk arautzeko, 1. artikulua b) apartatua eta I. eranskinetik XIV. era bitarteko eranskinak izan ezik.
4. 1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoa.

5. ESS/1897/2013 Aginduaren alderdi guztiak (urriaren 10ekoa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua garatzen duena).
6. LOEtik eratorritako LHko tituluak arautzen dituzten errege-dekretuetan, 2017ko martxoaren 5a baino lehenago eman badira argitara, ezarritako lanbide-moduluen baliozkotzeei buruzko eranskina (IV).
7. 2001eko abenduaren 20ko Agindua, LOGSEtik eratorritako LHko ikasketen baliozkotzeak ezartzen dituena, eta agindu horren geroagoko aldaketak.
8. 2159/2014 ECD Agindua, azaroaren 7koa, eta urriaren 26ko 1055/2017 ECDn jasota agertzen den aldaketa; bietan Espainiako hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak eta baliozkotze horiek aplikatzeko neurriak ezartzen dira.
9. 777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren esparruan antolatzeko alderdi jakin batzuk garatzekoa. II. eta III. eranskinak izan ezik.

2. KAPITULUA. SALBUESPENAK

Salbuespenak ondorio akademikoak ditu. Modulu edo ikasgai jakin bat egitetik salbuetsita egotea da, indarreko araudiak jasotako arrazoiak direla medio.

Lanbide-modulu hauetatik salbuetsita egon ahal izango da:

2.1 PRESTAKUNTZA ENPRESAN

659/2023 Errege Dekretua aplikatu behar da. 131. artikulua-*Enpresan edo parekatutako erakunde*an egiten den prestakuntza-alditik salbuestea:

1. Prestakuntza-aldia araubide librearen esparruan (ez proba libreetan, eskaintza partzialetan...) baino ez da salbuetsiko.
2. Enpresan edo erakunde parekidean prestakuntza egitetik salbuetsita egongo dira egiten ari diren prestakuntza-eskaintzarekin bat datorren gutxienez sei hilabeteko lan-esperientzia egiaztatzen dutenek, C eta E graduen kasuan, edo urtebeteko esperientzia edo baliokidea egiaztatzen dutenek, D graduen kasuan.
3. Lan-esperientzia Errege Dekretuaren 177. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera justifikatuko da.
4. Enpresan egiten den prestakuntza-aldiaren salbuespena osoa edo partziala izan daiteke, aintzat hartuta prestakuntza jasotzen ari den pertsonaren lan-zereginak eta enpresan edo erakunde parekidean egiten den aldiari esleitutako ikaskuntza-emaitezkin duen bat-etortze maila.
5. Salbuespena matrikula egin den Lanbide Heziketako ikastetxean eskatuko da, zeinak eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera ebatziko duen, administrazio eskudunak ezarritako moduan eta iraupenarekin, edo C graduatarako eta, hala badagokio, A eta B graduatarako eskumena duen administrazioaren aurrean.
6. Salbuespena matrikula egin den Lanbide Heziketako ikastetxean eskatuko da, zeinak eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera ebatziko duen [...]
7. Salbuespena [...]ebaluazio-dokumentazioan jasoko da eta ez die eragingo ikastetxearen eta enpresaren artean partekatutako ikaskuntza-emaitezkin ikaskuntza-moduluetan lortutako notei.

Ikastetxeko zuzendariak eman edo ukatuko du salbuespena, ebazpen arrazoituaren bidez. Ikaslearen espediente akademikoari gaineratuko zaio ebazpen horren kopia bat (*2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 12. artikulua*).

Ikaslea matrikulatzen den unetik beretik aitor daiteke salbuespen osoa edo partziala eta, edonola ere, azken ebaluazioaren data baino lehenago ebatzi ahal izateko moduan eman beharko da (*otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua izan den otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikulua*). Salbuespen partzialari dagokionez, ebazpena lantokiko prestakuntzako tutoreari ere jakinaraziko zaio, eta bertan salbuespen partzialaren ordu kopurua ere eman beharko da aditzera (*2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 12.3 artikulua*).

2.2 E100 eta E200 INGELESA

2.2.1 Entzuteko desgaitasunena duten ikasleak

Derrigorrezko Hezkuntzaren eta Derrigorrezkoaren ondokoaren Curriculumaren egokitzapenei eta salbuespenei buruzko 2012ko irailaren 10eko Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideekin bat etorri, ingeles teknikoaren **salbuespen osoa edo partziala** eska dezakete **entzuteko desgaitasunen bat** duten ikasleek.

Irizpide hauen arabera zehaztuko da salbuespen osoa edo partziala:

- Salbuespen osoa emango da desgaitasuna % 33tik gorakoa bada.
- Desgaitasuna % 33tik beherakoa bada:
 - ✓ Salbuespen osoa emango da, baldin eta egiaztatzen badu ibilbide akademiko osoan egon dela ingelesetik salbuetsita.
 - ✓ Gainerako kasuetan, salbuespen partziala emango da.

Salbuespenak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari eskatuko zaizkio, **Lanbide Heziketako zuzendariak 2013ko otsailaren 15ean emandako jarraibideek ezarritako prozeduraren arabera.**

Salbuespenak eskatzeko prozedura:

- a) Legezko ordezkariak edo interesdunak berak, adinez nagusia balitz, irakasle tutorearen eta ikastetxeak izan dezakeen orientazio-zerbitzuen aholkuarekin, eta, hala badagokio, dagokion Berritzeguneko zerbitzu eskudunaren aholkuarekin, ikastetxeko zuzendaritzaren bitartez eskatuko du salbuespena, eta desgaitasun-mailaren egiaztagiria atxiki beharko dio eskabide horri, baita eskaera arrazoitzen duen ikaslearen desgaitasunari buruzko txosten medikoa ere, hala badagokio. Eskabide horretan zehaztu beharko da zer salbuespen mota eskatzen den, osoa edo partziala, baita arrazoi beragatik lehenago salbuespenik izan duen ere.
- b) Ikastetxeko zuzendaritzak salbuespen-eskaera igorriko dio Lanbide Heziketako eskualdeko unitateari, eskatutako agiriei atxikita salbuespenaren egokitasunari eta komenigarritasunari buruz Berritzeguneko zerbitzu eskudunak egingo duen txostena.
- c) Lanbide Heziketako eskualdeko unitateak jaso beharko du Hezkuntzako Ikuskaritzak eskabidearen legezkotasunari buruz egingo duen txostena. Txosten horretan egiaztatu eta adierazi beharko da ikasleak lehenago ere salbuespenik edo curriculumaren egokitzapen esanguratsurik izan duen ikasgai horretan.
- d) Lanbide Heziketako eskualdeko unitateak izapidetuko du salbuespen-eskabidea Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren aurrean, eta azken horrek, ebazpen baten bitartez, eskaera baietsi edo ezetsi egingo du. Ebazpen hori igorriko zaio ikastetxeari, eta bertako zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ebazpen hori ikaslearen lege-ordezkariei edota interesdunari berari, adinez nagusia balitz.
- e) Halaber, ebazpen hori ikaslearen espedientean jasoko da.

2.2.2 EAEko arauetan 24-25 ikasturterako E100 eta E200etarako aurreikusitako beste kasu batzuk

Otsailaren 2ko **14/2016 Dekretuak** aldatutako otsailaren 26ko **32/2008 Dekretuaren 27.** artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek eska dezakete ingeles teknikitik salbuestea:

- *21 urtetik gorakoek, baldin eta gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatzen badute eta uztailaren 17ko **1224/2009 Errege Dekretuak** (martxoaren 9ko **143/2021 Errege Dekretuak** aldatua) ezarritako prozeduraren bidez edo enplegurako Lanbide Heziketako sistemaren bidez gaitasun-atalak (gaitasuna aitortzeko sistema) egiaztatuta badituzte edo heziketa-zikloaren iraupenaren erdia, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluak (enplegurako prestakuntza) gainditu badituzte.*
- *Heziketa-zikloan lehendabizikoz matrikulatzen diren eta urte naturalean 45 urte betetzen dituzten pertsonak, eta hortik gorakoak.*

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariak emango du.

3. KAPITULUA. BALIOKIDETASUNAK

Baliokidetasunak amaitutako ikasketen truke ematen dira. Ezagutza publikokoak dira, BOEn argitaratzen direnez. Baliokidetasuna, titulu jakin batek (edo interesdunak gainditutako ikasketa multzo batek) beste baten ondorio berdina dituela aitortzen da.

Edonola ere, **baliokidetasunak ez du egungo titulua** edo titulu baliokide bat **eskuratzeko eskubiderik ematen**.

659/2023 Errege Dekretua. 132. artikulua. *Baliokidetasunen esparrua*

1. Baliokidetasunak honako esparru hauetan eman daitezke:
 - a. Egiaztagiri eta tituluen artean
 - b. C eta D garduen artean...
 - c. Amaitutako titulazioena...
2. Baliokidetasunak honelakoak izan daitezke:
 - a. Espezifikoa
 - b. Orokorra

659/2023 Errege Dekretuaren 133. artikulua. *Baliokidetasunaren ondorioak*

- **Profesionalak.** Berariazko aitortza horren bidez, prestakuntza baliokideek laneratzeko aukera berdina eskaintzen dizkiote ikasleari. Normalean, «BALIOKIDEA, ENPLEGU PUBLIKO EDO PRIVATUETAN SARTZEKO ONDORIOETARAKO» aipamena egiten da. Ez du araupeko lanbideei dagokiena nahitaez emango, berariaz adierazi ezean.
- **Akademikoak.** Sartzeko baldintza gisa aitortzen du, ikasketa edo prestakuntza-ibilbide formalak egiten jarraitzeko.

777/1998 Errege Dekretuaren II. eta III. eranskinak (apirilaren 30ekoa, Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren esparruan antolatzeko alderdi jakin batzuk garatzeko) ere aplikatzekoak dira.

Unibertsitateaz kanpoko ikasketa eta tituluen baliokidetasunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren webgunean kontsulta daitezke, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-tituluen-eta-ikasketen-baliokidetzak/webo1-a3hakade/eu/>

LOGSEtik eratorritako heziketa-zikloen eta horien ordeko LOEtik eratorritako heziketa-zikloen arteko baliokidetasunak LOEren titulu bakoitzean jasota daude.

Taula honetan daude jasota LOGSEren aurreko tituluen beste baliokidetasun batzuk:

TITULAZIOA (1955EKO LEGEAREN IRAKASKUNTZ AK)	TITULAZIO BALIOKIDEA (1970EKO LEGEAREN IRAKASKUNTZAK)	ERAGINAK	ESPARRUA	ARAUA
INDUSTRIA OFIZIALA (Industria ikaskuntza)	TEKNARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak)	Ondorio guztietarako (akademikoak eta profesionalak)	Generikoa	Agindua, 1975eko azaroaren 21ekoa (azaroaren 25eko BOE)
INDUSTRIAKO MAISUA (industriako maisutza)	TEKNARI ESPEZIALISTA (bigarren mailako Lanbide Heziketa edo III. mailako modulu esperimentalak)			

<https://todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html>

TITULAZIOA (1970EKO LEGEAREN IRAKASKUNTZAK)	TITULAZIO BALIOKIDEA (ONDORENGO IRAKASKUNTZAK)	ERAGINAK	ESPARRUA	ARAUA
TEKNARI LAGUNTZAILEA TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak)	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	Akademikoak	--	2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE)
TEKNARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak)	TEKNARIA (erdi-mailako heziketa-zikloak, LOGSE/LOE)	Profesionalak	Espezifikoa	Ikus oharra (*)
TEKNARI ESPEZIALISTA (bigarren mailako Lanbide Heziketa edo modulu esperimentalak)	GOI-MIALAKO TEKNARIA (goi-mailako heziketa-zikloak, LOGSE/LOE)	Ondorio guztietarako (akademikoak eta profesionalak)	Espezifikoa	Ikus oharra (*)

777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren esparruan antolatzeke alderdi jakin batzuk garatzeko. (Eranskin horiek ez daude indargabetuta).

4. KAPITULUA. HOMOLOGAZIOAK

Unibertsitateaz kanpoko atzerriko tituluak, diplomak edo ikasketak **homologatzeak** indarrean dagoen Espainiako hezkuntza-sistemaren tituluekiko baliokideak direla finkatzen du, ondorio akademiko eta profesional guztietarako. Erkidego honetan, Hezkuntza Saileko Orientazio Akademikorako zerbitzuari eskatu behar zaizkio.

659/2023 Errege Dekretuaren 135. artikulua. Homologazio kasuak

Homologazioak atzerriko egiaztagiri edo tituluen eta Espainiako Lanbide Heziketako Sistemako egiaztagiri edo tituluen artean gertatzen dira.

136. artikuluan zehazten dira prozedura eta ebazpen-irizpideak.

Ikastetxeek BALDINTZAPEAN ONARTU AHAL IZANGO DITUZTE haien baliokidetze- edo homologazio-espedienteak hasi eta ebaztearen zain dauden ikasleak.

BALDINTZAPEAN IZENA EMATEKO orduan, aintzat hartuko da 1988ko martxoaren 14ko aginduak 10. apartatuan (1996ko apirilaren 30eko aginduaren eta abenduaren 16ko ECD/3305/2020 aginduaren bidez aldatua) xedatutakoa:

5. Baldintzapean izena emateko BOLANTEAREN indarraldiaren gehieneko epeak hauek dira:

a) Baldintzapeko izen-ematean, sei hilabetekoa, Erregistro Unitatean zigilatu zuten datatik aurrera.

b) Behin baldintzapeko izen-ematea eginda, BOLANTEA indarrean egongo da izena eman den ikasturtean, eta azken ebaluazio-akta izenpetzen den egunera arte.

Hala ere, aurreko lerroketan adierazitako epeak igaro ondoren, eta eskatzaileari egoztekoak ez diren arrazoiak medio homologazioaren edo baliozkotzearen eskaerak ez badu berriazko ebazpenik jaso, prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak BOLANTE berri bat eman ahalko dio interesdunari, ofizioz edo honek eskatuta. BOLANTE berria zuzenean igorriko zaio ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeari, eta indarraldia idatziz jasoko du, ezingo dena izan ikasturte batetik gorakoa.

6. Hori justifikatzen duten inguruabarrak daudenean, Saileko Idazkaritza Tekniko Nagusiak, agindu honen azken xedapenetako lehenengoan aipatzen diren jarraibideen bidez, bolantearen indarraldiaren epe horiek oro har luzatu ahal izango ditu, beste bolante indibidual batzuk egin beharrik gabe.

Aldeko ebazpenik aurkeztu ezean, hurrengo ikasturtearen amaierako ebaluazioa egitean irregularizatu beharko da egoera hori, matrikula baliogabetu eta ikaslea aktatik kanpo utziz.

<p>Ohar garrantzitsua: Komeni da ikastetxeak baldintzapeko izen-emateen aldian behingo segimendua egitea.</p>
--

Unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketen homologazio osoa edo partziala Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak sortutako **aplikazio informatikoaren bidez izapidetzen da**. Prozedura horri buruzko informazioa EJren Hezkuntza Sailaren webgunean dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.eus/homologacion-o-convalidacion-de-titulos-o-estudios-extranjeros-no>

5. KAPITULUA. GAINDITUTAKO MODULUEN KALIFIKAZIOAK LEKUALDATZEA

1085/2022 Errege Dekretua. 3. artikulua. *Printzipio orokorrak*

Kode berdinak, izendapen berdinak, amaierako ahalmen edo ikaskuntza-emaitza berdinak eta eduki zein iraupen berdinak dituzten LOE heziketa-zikloetako lanbide-moduluei modulu berdin iritziko zaie, edozein dela ere dagokien heziketa-zikloa. **Hala, gainditutako lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioak lekualdatuko dira** aipatutako modulu horiek barne hartzen dituzten zikloetan edozeinetara.

Kalifikazioa lekualdatzeko ez da beharrezkoa interesdunak hori eskatzea, **ofizioz egingo da eta**.

Ondorioz, lanbide-modulu berdinen arteko kalifikazio-lekualdatzeen kasuan, ez da matrikula egingo lekualdatze hori egiten den lanbide-moduluan edo moduluetan.

Modulu bateko kalifikazioa akta OFIZIAL batean jasotzen denean, ezin izango da berriro kalifikatu.

Kalifikazioa lekualdatzeko, **gaindituta** eduki behar da dagokion modulua. Horren arabera, ikasleren batek modulu bateko deialdiak agortu egin baditu, ez du aurkako kalifikazio lekualdaturik izango, eta, beraz, beste heziketa-ziklo batean egin ahalko du modulu hori.

6. KAPITULUA. BALIOZKOTZEAK

Baliozkotzeak baliozkoak dira ondorio akademiko eta profesionaletarako, eta hezkuntza-sisteman sartu daitezke, dagokien mailan. Baliozkotzeetan, prestakuntza bat gaindituta dagoela berresten da, beste bat aurkeztuta. Heziketa-zikloen osagai diren lanbide-moduluak bakarrik baliozkotu daitezke. **659/2023 Errege Dekretuaren 126.1 artikulua** arabera

Honako hauek baliozkotzea eska daiteke:

- *Heziketa-ziklo desberdinetako lanbide-moduluak*
- *Egiaztapen-prozedura baten bidez egiaztatutako gaitasun-estandarrak*
- *LHko atzerriko ikasketak, homologazioa lortzen ez denean*
- *LHren eta unibertsitateko ikasketen arteko goi-mailako hezkuntzako kredituak*

Ezin dira baliozkotu honako hauek:

- *Enpresako prestakuntza*
- *Modulu arteko proiektua*
- *Erdi- eta goi-maila arteko ingeles profesionala*
 - *E100 ingeles teknikoa 0156 ingeles profesionalagatik*
 - *E200 ingeles teknikoa 0179 ingeles profesionalagatik*
- *Erdi- eta goi-maila arteko digitalizazioa*

Zer erakundek ematen ditu:

- *Ikasleak matrikulatuta dauden ikastetxeko zuzendariak, indarrean dauden arauetan aitortuta badaude (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua, eta abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 8.1 artikulua).*
- *Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, indarrean dagoen araudian jasota ez dauden gutxieneko irakaskuntzetan sartutako lanbide-moduluen baliozkotzeak (ikus dokumentuaren 5.1.1.C eta 5.1.2.D, 5.1.2.E apartatuak)*

6.1 659/2023 ERREGE DEKRETUAREN ONDORIOZKO GOGOETAK

- **126 artikulua. Baliozkotu daitezkeen elementuak**

-Honako hauek baliozkotu daitezke:

- a) Lanbide Heziketako Sistemako prestakuntza ezberdinen arteko lanbide-moduluak.*
- b) Lan-esperientziaren bidez edo beste bide formal eta ez-formal batzuen bidez eskuratutako gaitasun profesionalak egiaztatze prozedura baten bidez egiaztatutako gaitasun-estandarrak.*

c) Lanbide Heziketako atzerriko ikasketen ordeez Espainiako Lanbide Heziketako Sistemaren prestakuntza-eskaintzen ordeez, elkarren arteko homologazioa lortzen ez bada.

d) Lanbide Heziketako ikasketen eta unibertsitateko ikasketen arteko goi-hezkuntzako kredituak.

- Gradu bereko heziketa-zikloen artean, honako hauek baliozkotu daitezke:

a) Ingeles profesionala.

b) Produkzio-sektoreari aplikatutako digitalizazioa, baldin eta lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak badira.

b) Produkzio-sektoreari aplikatutako jasangarritasuna, baldin eta lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak badira.

- Ezin dira baliozkotu honako hauek:

a) Enpresako prestakuntza-aldia, osorik edo partzialki baino ezin baita salbuetsi.

b) Modulu arteko proiektuaren lanbide-modulua.

c) Erdi-eta goi-mailako heziketa-zikloen arteko ingeles profesionalaren modulua.

d) Erdi-eta goi-mailako heziketa-zikloen arteko produkzio-sektoreari aplikatutako digitalizazio modulua.

- Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala I eta II lanbide-moduluak prestakuntza-eskaintzen artean baliozkotuko dira. Aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako:

a) Prestakuntza-ekintza berriaren eraginpeko lanbide-moduluaren kalifikazioa aurreko prestakuntzaren espediente akademikoan agertzen dena izango da.

Baliozkotzea osoa izango da desagertutako Laneko Prestakuntza eta Orientabidea eta Enpresa eta Ekimen Sortzailea heziketa-zikloetako lanbide-moduluak egin badira.

- Baliozkotutako lanbide-moduluak ezin izango dira erabili beste lanbide-modulu batzuen baliozkotze berrietarako.

• **127 artikulua. LHko moduluen baliozkotzeak LHko Sistemako prestakuntzen eta aurretiko erregulazioak dituzten prestakuntzen artean.**

- B, C, D eta E gradu bereko edo desberdineko prestakuntza-ekintzen lanbide-moduluak baliozkotu ahal izango dira; horretarako, aurreko prestakuntzan baliozkotutako lanbide-moduluan lortutako kalifikazioa jaso beharko da espediente akademikoan.

- Lanbide-moduluak Hezkuntzari eta Hezkuntzaren Erreforma Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorraren babesean araututako Lanbide Heziketako ikasketen bidez baliozkotzen badira, «baliozkotu» gisa jasoko da, eta ez da zenbatuko prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako.

- Lanbide-moduluak LOGSEk araututako lanbide-heziketako ikasketen bidez baliozkotzen badira, abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren eranskinen arabera ebatziko da, eta kalifikazioa aurkeztutako moduluen espediente akademikoan agertzen dena izango da.

- Lanbide-moduluak, Profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren babesean, profesionaltasun-ziurtagirien bidez baliozkotzeko espezializazio-titulua edo -ikastaroa ezartzen duen errege-dekretuaren eranskinak erabiliko dira. Baliozkotze hori «baliozkotu» gisa erregistratuko da ebaluazio-dokumentu guztietan, eta «5»eko notarekin baliozkotuko da prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako.
 - LOGSEren lanbide-moduluak LOMLOEren Lanbide Heziketako tituluen bidez baliozkotzen badira, prestakuntza-ekintza berriaren eraginpeko lanbide-moduluaren kalifikazioa aurreko prestakuntzaren espediente akademikoan agertzen dena izango da.
 - Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala I eta II moduluak Laneko Prestakuntza eta Orientabidea eta Enpresa eta Ekimen Sortzailea lanbide-moduluen bidez baliozkotzen badira, LPO (Laneko Prestakuntza eta Orientabidea) eta EESko (Enpresa eta Ekimen Sortzailea) lanbide-moduluen kalifikazioa Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala I eta II moduluen espedientea akademikoan agertzen dena izango da, hurrenez hurren. Zenbakizko kalifikaziorik izan ezean, «baliozkotu» gisa erregistratuko da ebaluazio-dokumentu guztietan, eta «5»eko notarekin baliozkotuko da prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako.
- **128. artikulua. Lan-esperientziaren bidez edo beste bide formal eta ez-formal batzuen bidez eskuratutako gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozedura baten bidez egiaztatutako gaitasun-estandarrek baliozkotzea.**
 - 1.- Lanbide Heziketako Sistemako ikastetxeek ebatziko dute baliozkotzea, interesdunak matrikula egindakoan eskatu ondoren. Ebazpena «baliozkotu» gisa erregistratuko da ebaluazio-dokumentu guztietan, eta «5»eko notarekin baliozkotuko da prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako.
 - 2.- Lanbide-esperientzia eta prestakuntza ez-formala ezin izango dira aurkeztu lanbide-moduluak baliozkotzeko, baldin eta gaitasun profesionalak egiaztatzeko prozedura baten bidez aitortu ez badira.
 - **129. artikulua. Lanbide Heziketako atzerriko ikasketen eta Espainiako Lanbide Heziketako Sistemako prestakuntza-ekintzen arteko baliozkotzea.**
 - 1.- Eskatutako homologazioa lortzen ez denean, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eskatzaileari jakinaraziko dio, hala badagokio, eskatutakoa ez den prestakuntza-ekintza bat osorik baliozkotu dezakeela, edo eskatutako prestakuntza-ekintzaren partzialki baliozkotu dezakeela. Interesdunak erantzun ezean, positibotzat joko da prozedurak aurrera egin dezan.
 - 2.- Baliozkotzea Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko unitate eskudunak ebatziko du, eta baliozkotutako lanbide-moduluak jasotzen dituen egiaztagiri baten bidez egiaztatuko da. Etorkizunean matrikula egiten bada baliozkotutako lanbide-moduluak barne hartzen dituzten Lanbide Heziketako eskaintzetan, egiaztagiria aurkeztu ahal izango da aipatutako lanbide-moduluak ez egiteko, eta Lanbide Heziketako ikastetxeak «baliozkotu» gisa jasoko

ditu, eta «5»eko notarekin baliozkotuko da prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako.

- **130 artikulua. LHko Sistemaren eta unibertsitate-sistemaren arteko aintzatespena.**

Goi-mailako zikloen eta graduako unibertsitate-tituluen arteko ECTS kredituak aitor daitezke, eta elkarrekiko aitorpena izango da. Baliozkotzeak ezartzeko orduan, kontuan hartuko da prestakuntzek elkarren artean loturarik duten. Era berean, kreditu gehigarrien bidez aitortu ahal izango dira LHko eta unibertsitateko masterrak.

6.2 ED BERRIETATIK ERATORRITAKO GOGOETAK

1. 498/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, oinarrizko Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.

- Zientzia Aplikatuak I eta II, eta Komunikazioa eta Gizarte Zientziak I eta II eremuak garai bateko Zientzia Aplikatuak I eta II eta Komunikazioa eta Gizarte I eta II lanbide-moduluekin baliozkotzeko, matrikula egin den Lanbide Heziketako ikastetxean egin beharko da eskaera. Ikastetxeak automatikoki ebatziko du, eta eraginpeko eremuaren kalifikazioa garai bateko prestakuntzaren espediente akademikoan agertzen dena izango da.
- Komunikazioa eta Gizarte Zientziak I eta II eta Zientzia Aplikatuak I eta II moduluak martxoaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritako tituluei dagokien oinarrizko Lanbide Heziketako edozein heziketa-zikloetan gainditu dituztenei modulu horiek baliozkotuko zaizkie, oinarrizko Lanbide Heziketako beste edozein heziketa-ziklotan. Ikastetxeak automatikoki ebatziko du eta lortutako kalifikazioa mantenduko da.
- Hasierako lanbide-prestakuntzako programa egin duten eta komunikazio eta gizarte arloko nahitaezko heziketa-zikloak eta atzerriko hizkuntzaren modulu bat gainditu duten ikasleei Komunikazioa eta Gizarte Zientziak I heziketa-modulua baliozkotu ahalko zaie. Halaber, zientzia-teknologia esparruko nahitaezko heziketa-moduluak gainditu dituztenei Zientzia Aplikatuak I lanbide-modulua baliozkotuko zaie.
- Gainera, oinarrizko ziklo batean matrikulatuta daudenek:
 - a) Hiru gai hauek gaindituta dituztenak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako Gaztelania eta Literatura (eta Hizkuntza Koofiziala eta Literatura, egonez gero), Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia , edozein modalitatetan, Komunikazioa eta Gizarte Zientziak I eta II eremuak lortu ahalko dituzte.
 - b) Matematika (A edo B) gainditua dutenek eta lau hauetatik bi: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Teknologia eta Digitalizazioak, edozein modalitatetan, Zientzia Aplikatuak I eta II eremuak lortu ahalko dituzte.

- *Lanbide-moduluak lan-esperientziaren bidez edo beste bide formal eta ez-formal batzuen bidez eskuratutako gaitasun profesionalen estandarren bidez baliozkotzeko, uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 128. artikuluan ezarritakoa beteko da. Horretarako, Errege Dekretu horretan jasotako titulu bakoitzaren 6 bis apartatuetako «egiaztatutako gaitasun-atalen eta lanbide-moduluen arteko elkarrekikotasuna, horiek baliozkotzeko» taulak aplikatuko dira.*
- 2. 499/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa**, erdi-mailako Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena, eta **500/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa, goi-mailako** Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
- *Titulu honetako lanbide-moduluak baliozkotzeko baldintzak uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 126. artikuluan ezarritakoak izango dira.*
 - *Lanbide Heziketako Sistemako prestakuntzen eta horren aurretiko erregulazioen berezko prestakuntzen arteko lanbide-moduluak uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 127. artikuluan xedatutakoaren arabera baliozkotuko dira.*
 - *Lanbide Heziketako Sistemako prestakuntzen eta horren aurretiko erregulazioen berezko prestakuntzen arteko lanbide-moduluak uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 127. artikuluan xedatutakoaren arabera baliozkotuko dira.*
 - a) *2017ko martxoaren 5a baino lehen ezarritako tituluei abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko zaie.*
 - b) *2017ko martxoaren 5aren ondoren ezarritako tituluei errege-dekretu bakoitzaren IV. eranskinean xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, modu osagarrian, abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretua.*
 - *Lanbide-moduluak lan-esperientziaren bidez edo beste bide formal eta ez-formal batzuen bidez eskuratutako gaitasun profesionalen estandarren bidez baliozkotzeko, uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 128. artikuluan ezarritakoa beteko da, hala badagokio.*
 - *Gaitasun profesionalen estandarrak lanbide-moduluak gainditzearen bidez egiaztatzeko, «lanbide-moduluen eta gaitasun-atalen arteko elkarrekikotasuna, horiek baliozkotzeko» taulak aplikatuko dira, bai eta indargabetutako uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak (uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoa) araututako prozeduraren bidez egiaztatutako gaitasun-atalak ere.*
 - *Kontuan hartuta gaitasun-atalen eta/edo lanbide-moduluen izendapenen eguneratzeak, desadostasunik egonez gero, kodifikazioa nagusituko zaio izendapenari.*
 - *Enpresan edo erakunde parekidean egin beharreko prestakuntza-aldia uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 131. artikuluan jasotako baldintzetan salbuetsi ahal izango da.*
 - *Enpresan edo erakunde parekidean egin beharreko prestakuntza-alditik salbuetsita geratuko dira honako errege-dekretu hauetan ezarritako Osasunaren lanbide-arloko goi-mailako graduako heziketa-zikloak prestakuntza: 1685/2007 Errege Dekretua,*

abenduaren 14koa; 1687/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; 905/2013 Errege Dekretua, azaroaren 22koa; 767/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa; 768/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa; 769/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa; 770/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa; 771/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa, eta 772/2014 Errege Dekretua, irailaren 12koa».

3. **497/2024 Errege Dekretua, maiatzaren 21ekoa**, Lanbide Heziketaren esparruan **erdi-mailako eta goi-mailako espezializazio-ikastaroak** ezarri eta haien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituena.
- *Titulu honetako lanbide-moduluak baliozkotzeko baldintzak uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 126. artikuluan ezarritakoak izango dira.*
 - *Lanbide Heziketako Sistemako prestakuntzen eta horren aurretiko erregulazioen berezko prestakuntzen arteko lanbide-moduluak uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 127. artikuluan xedatutakoaren arabera baliozkotuko dira.*
 - *2017ko martxoaren 5a baino lehen ezarritako tituluei 1085/2020 Errege Dekretuan (abenduaren 9koa, Espainiako hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako tituluetakoa lanbide-moduluen baliozkotzeak eta horiek aplikatzeko neurriak ezartzen dituena eta hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretua aldatzen duena.) xedatutakoa aplikatuko zaie.*
 - *2017ko martxoaren 5aren ondoren ezarritako tituluei errege-dekretu bakoitzaren IV. eranskinean xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, modu osagarrian, abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretua.*
 - Lanbide-moduluak lan-esperientziaren bidez edo beste bide formal eta ez-formal batzuen bidez eskuratutako gaitasun profesionalen estandarren bidez baliozkotzeko, uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 128. artikuluan ezarritakoa beteko da, hala badagokio.
 - Gaitasun profesionalen estandarrek lanbide-moduluak gainditzearen bidez egiaztatzeko, «gainditutako lanbide-moduluen eta gaitasun-atalen arteko elkarrekikotasuna, horiek baliozkotzeko» taulak aplikatuko dira. Ondorio horietarako, gelaxka berean gainditutako bi lanbide-modulu edo gehiago agertzen badira, ulertuko da egiaztatzeko beharrezkoa izango dela horiek guztiak aldi berean izatea.
 - 4. puntuan aurreikusitako ondorioetarako, indargabetutako 1224/2009 Errege Dekretuak (uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoa) araututako prozeduraren bidez egiaztatutako gaitasun-atalak aplikatuko dira.
 - Enpresan edo erakunde parekidean egin beharreko prestakuntza-aldia uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren 131. artikuluan jasotako baldintzetan salbuetsi ahal izango da.

6.3 LOGSE-TIK ERATORRITAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZAK

Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikotik (LOGSE) eratorritako heziketa-zikloren batean matrikulatutako ikasleak honako arrazoi hauek direla medio eskatu ahal izango du baliozkotzea:

A. LOGSEren beste ziklo bat (**LOGSE →LOGSE**) osorik edo partzialki gainditu izana egiaztatzeagatik

Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotzen dira LOGSEtik eratorritako zikloetako lanbide-moduluak balizko baliozkotzeak, LOGSEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gaindituta.

B. LOEren ziklo bateko LPO modulua gainditu izana egiaztatzeagatik (**LPO LOE →LPO LOGSE/ENPLEGAGARRITASUNA I**)

LOGSEk babestutako **erdi-mailako graduko** tituluen LPO LOGSE/Enplegagarritasuna I lanbide-moduluak baliozkotu ahal izango dira erdi-mailako edo goi-mailako LOEren titulu baten LPOko edozein modulu aurkezten denean (*abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra 1. / 659/2023 Errege Dekretuaren 127.5 artikulua*).

Inola ere ezin izango da baliozkotu LOGSEk babestutako **goi-mailako zikloko** tituluen LPO modulua LOEk babestutako tituluen LPO modulua aurkeztuta. (*abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra 2 / 659/2023 Errege Dekretuaren 127.5 artikulua*).

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko **zuzendariaren eskumena da A eta B** apartatuetako baliozkotzeak ebaztea.

C. Honako hauek egiaztatzeagatik:

- Abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen babesean ezarritako LH1 edo LH2 ikasketak. (1)*
- LOEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.
- II. eta III. mailako modulu esperimentalak
- Unibertsitate-ikasketa ofizialak
- Araubide bereziko irakaskuntzak

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari dagokio, ikastetxearen bidez, C apartatuko baliozkotzeak ebaztea, Atzerriko hizkuntza edo ingelesa lanbide-modulua izan ezik, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzaren espezialitate bereko Filologia edo Itzulpengintza eta Interpretazioko unibertsitate-tituluak aurkezten direnean (*abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua*); kasu honetan ere, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariaren eskumena izango da. Baliozkotze-eskaera izapidetzean, aurrerago deskribatuko den prozedurari jarraituko zaio.

6.4 LOE-TIK ERATORRITAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASKUNTZAK

2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak baliozkotzeko eskaerak honako arau hauetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- **1085/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa**
- **659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 22koa**
- EAEn, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren bidez (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren 27. eta 27 bis artikuluen bidez aldatua) eman zen arau korrelatiboa.

Araudi horiez guztiez gain, titulu bakoitzak, bere araudi erregulatzailean, gaitasun-atalen elkarrekikotasunak ezartzen ditu; horiek egiaztatuz gero, LOE lanbide-moduluak baliozkotzen dira:

- Titulu bakoitza arautzen duen errege-dekretuaren V A) eranskina.
- EAEko curriculumak arautzen dituzten dekretuen VI. eranskina. Matrikulatutako ikasleak baliozkotzeak eska ditzake honako hauek egiaztatzeagatik:
 - A. LOEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.
 - B. LOGSEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.
 - C. Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko gaitasun-atalak, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua) (Gaitasunak Egiaztatzeko Sistema) araututako prozeduraren eta/edo 2024-25 ikasturtean profesionaltasun-ziurtagirien bidez lortuak.
 - D. Abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen babesean ezarritako LH1 edo LH2 ikasketak
 - E. II. eta III. mailako modulu esperimentalak
 - F. Unibertsitate-ikasketa ofizialak.

(1*)

Ohar garrantzitsua: Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuan honako hau adierazten da:

Lehen xedapen gehigarria. Titulazio baliokideak.

Ondorio akademikoetarako edota profesionaletarako Lanbide Heziketako tituluekin baliokidetasun espezifikoa edo generikoa duten ikasketak ezin izango dira lanbide-moduluak baliozkotzeko aurkeztu, ezta atzerrian eman diren eta Espainiako Hezkuntza Sistemako tituluekin homologatuak izan diren tituluak ere.

Alegia, LOGSEtik LOErako baliozkotzea egin ahal izango dute LOGSEren ikasketak osatu ez dituztenek bakarrik, INOIZ EZ, ordea, LOGSEren titulua dutenak, LOEren Errege Dekretuan eta EHAAn argitaratutako dekretu korrelatiboan espresuki baliokidetzat jotako titulua bada (ikus EHAako dekretu guztien lehenengo xedapen gehigarria: Titulazio baliokideak eta lanbide-gaikuntzarekin duten lotura).

6.5 LOE-REN ZIKLOETAKO EAE-KO MODULU PROPIOAK BALIOZKOTZEA

Ingeles teknikoko modulua E100 edo E200 kodeekin (erdi-mailarako eta goi-mailarako, hurrenez hurren) sartu zen EAEko curriculumetan. 2024-2025 ikasturtean emango dira azkeneko aldiz.

Maila bereko ingeles teknikoko moduluetan, kode bera badute, kalifikazioa **lekualdatu egingo da** (otsailaren 2ko 14/2016 Errege Dekretuaren 27. artikulua).

- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak emandako idazkeran:
 - Erdi-mailako modulua (E100) baliozkotzeko irizpidea onartu da, goi-mailako modulua gaindituz (E200).
 - EAEko ingeles teknikoko modulu propioa baliozkotzea ere onartuko zaie ingelesean **B1** maila edo goragoko bat egiaztatzen duten ikasleei, **erdi-mailako heziketa ziklotan (E100)**, edo **B2** maila edo goragoko bat, **goi-mailako heziketa ziklotan (E200)**.
 - Era berean, ingeles teknikoko erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-modulua baliozkotzea onartuko zaie Ingeles Filologiako gradu-titulua edo Itzulpengintza eta Interpretazioko gradu-titulua (ingelese) egiaztatzen dutenei.

6.6 ZIKLOEN ARTEKO BALIOZKOTZE “GURUTZATUAK”

Titulu bakoitzaren Errege Dekretuaren IV. eranskinean eta kasuko curriculum-dekretuaren V. eranskinean adierazten dira urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) babesean ezarritako moduluen arteko baliozkotzeak. Kasuko eranskinean adierazten da LOEren ziklo horri LOGSEren zer ziklo zegokion, halakorik balego. Izan ere, gerta liteke LOEren ziklo batzuek lanbide-modulu berdinak izatea (kode bera). Beste ziklo batzuetako modulu horiek ere LOGSErenak bezala baliozkotuko dira, ziklo horien eranskinetan espresuki identifikatuta ez dauden arren.

1085/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa

Bosgarren xedapen gehigarria. Lanbide Heziketako beste titulu batzuetan sartuta dauden lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak.

Errege dekretu honen I., II., III. eta IV. eranskinetan ezarritako baliozkotzeak, baita 2017ko martxoaren 5etik aurrera publikatutako tituluei buruzko errege-dekretuen eranskinetan jasota agertzen direnak ere, edozein heziketa-ziklotan sartuta dauden lanbide-moduluei aplikatu ahal izango zaizkie, Lanbide Heziketako zein titulu den alde batera utzita.

Alegia, errege-dekretu bakoitzaren IV. eranskina (dekretuetan bosgarrena da) aplikatuko zaie ikasleei, baldin eta ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu, LOGSEren babesean argitaratutako heziketa-zikloetako batean matrikulatuta egonik, honako baldintza hauek guztiak betetzen dituela:

1.a Matrikulatuta egondako LOGSEren tituluko lanbide-moduluren bat gainditu izana.

2.a LOGSEren heziketa-zikloan gainditutako lanbide-moduluak, ezinbestekoak direnak LOEren tituluko moduluekin baliozkotzeko, edozein dela ere zegokien LOGSEren titulua, kasuko LOEren tituluaren IV. eranskineko taulako ezkerreko zutabearen agertu beharko dira. Baliozkotzea zehaztutako norabidean bakarrik egin daiteke (taulan, ezkerretik eskuinera), inola ere ez kontrakoan.

7.- BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK ESKATZEA: OINARRIZKO ESKEMA

7.1 ALDERDI OROKORRAK

Baliozkotzeko edo salbuesteko eskaera egiteko, baliozkotzeko edo salbuesteko eskatzen den heziketa-zikloan matrikulatuta egon beharko da.

Eskaintza Partzialean edo Urrutikoan matrikulatuta dauden eta ikastetxeak eskaintzen ez dituen lanbide-moduluetan baliozkotzeko aukera duten ikasleek baliozkotzearen ondorioetarako soilik izango dute modulu horietan matrikulatzeko aukera (2012ko azaroaren 26ko Ebazpena).

Ezin izango da baliozkotzerik eskatu Lanbide Heziketako tituluak lortzeko probetan (proba libreak) (*abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 4. artikulua*).

Baliozkotzea edo salbuespena ikaslearen espediente akademikoan, ebaluazio-aktetan eta ziurtagiri akademikoan honela jasota geratuko da, hurrenez hurren:

a) Baliozkotua, baliozkotu diren lanbide-moduluetan.

1. Batez besteko nota lortzeko, baliozkotutako lanbide-moduluak baliozkotzeko aurkeztutako **lanbide-moduluan** eskatzaileak lortutako notarekin kalifikatuko dira (*abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.3 artikulua*).

Beste lanbide-modulu bat baliozkotzeko **hainbat modulu aurkeztuz gero**, hamartarrik gabe emandako moduluen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da, zifra zenbaki oso hurbilenera doitzeko biribiltzeko irizpide matematikoei jarraituz. Irizpide hori bera erabiliko da **ziklo oso bat aurkezten denean**; baliozkotutako modulua aurkeztutako zikloaren batez besteko notarekin kalifikatuko da (hamartarrik gabe).

Kasu horretan, matrikularen aplikazio informatikoan **CVa eta baliozkotzeko aurkeztutako lanbide-moduluan lortutako NOTA** agertu beharko dira.

Egiaztapen-prozedura baten bidez lortutako **gaitasun-estandarrak** 5eko kalifikazioarekin baliozkotuko dira batez besteko notaren ondorioetarako (659/2023 Errege Dekretuaren 128. artikulua)

2. Batez besteko nota kalkulatzeko, baliozkotzea **ez da kontuan hartuko** honako hauek aurkezten direnean:

- unibertsitate-ikasketak edo LOGSEren aurreko ikasketak. (*abenduaren 9ko 1085/2020 Dekretuaren 3.10 artikulua*).
- Hizkuntzetako unibertsitate-titulu ofizialak eta B1, B2 edo goragoko mailetako ziurtagiri akademiko ofizialak.
Kasu horretan, matrikularen aplikazio informatikoan **CVa bakarrik** agertu beharko da.

b) Salbuetsita, enpresako prestakuntza salbuetsi bada edo E100 eta E200 kasuetan.

7.2 BALIOZKOTZEAK EBAZTEKO ESKUMENA

Aplikatzekoa den araudia: 659/2023 Errege Dekretua (127.1.2.3.4.5 artikulua) eta 1085/2020 Errege Dekretua

Ikastetxeko zuzendariak positiboki ebatziko ditu indarrean dagoen araudian jasotako lanbide-moduluen baliozkotzeak:

Negatiboki ebatziko ditu **bere eskumenekoak diren eta arestian aipatutako araudian jasota ez dauden eskaerak.**

Ebazpena, behar bezala arrazoitua, interesdunari jakinaraziko zaio.

Baliozkotzean, inola ere ez dira kontuan hartuko lehendik baliozkotu diren lanbide-moduluak edo ikasketak; beraz, nahi izanez gero, baliozkotzea berriro eskatu beharko da, eta benetan egindako eta gaitutako ikasketen dokumentazio osoa aurkeztu beharko da (*otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.11 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua, eta abenduaren 9ko a 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.8 artikulua*)

EZ DIRA ONARTUKO eta, ondorioz, EZ DIRA HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETAKO MINISTERIORA BIDALIKO:

- Honako hauek dituzten baliozkotze-eskaerak:
 - Master ofizialak
 - Unibertsitate-titulu propio ez ofizialak.
 - Lan-esperientzia eta prestakuntza ez-formala
 - Ikaslea matrikulatuta dagoen LOGSEren zikloaren baliokidetzat jo izan diren LH1 edo LH2 tituluak. ⁽¹⁾
 - Ikaslea matrikulatuta dagoen LOEren zikloaren baliokidetzat jo izan diren LH1, LH2 edo LOGSE tituluak. ⁽¹⁾
 - Atzerrian eman diren eta Espainiako Hezkuntza Sistemako tituluekin homologatuak izan diren tituluak⁽¹⁾.
 - Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa aurretik ezarritako profesionaltasun-ziurtagiriak.
- Goi-mailako tituluei dagokien proiektuaren modulua baliozkotzeko eskaerak ⁽²⁾
- Unibertsitate-ikasketa ofizialen eta LHko teknikari tituluaren artean baliozkotzeko eskaerak ⁽³⁾
- Unibertsitateko ikasketak aurkeztuta, gutxieneko irakaskuntzetarako ezarritako ECTS kredituen % 60 baino gehiagoko moduluen kopuru bat eskatzen duten eskaerak (soilik ≤% 60) ⁽³⁾

⁽¹⁾ Ondorio akademikoetarako edota profesionaletarako Lanbide Heziketako tituluekin baliokidetasun espezifikoa edo generikoa duten ikasketak ezin izango dira lanbide-moduluak baliozkotzeko aurkeztu, ezta atzerrian eman diren eta Espainiako Hezkuntza Sistemako tituluekin homologatuak izan diren tituluak ere. (*Titulazio baliokideak, abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretua*).

⁽²⁾ Goi-mailako tituluei dagokien proiektuaren modulua ez da inolaz ere baliozkotuko, ezta **salbuetsiko** ere (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua).

⁽³⁾ Unibertsitateko eta LHko ikasketen artean baliozkotzeko, LHko ikasketek goi-mailako hezkuntzaren esparrukoak izan beharko dute. Gainera, eskatutako eta baliozkotutako goi-mailako zikloetako moduluen kopurua ez da izango gutxieneko irakaskuntzetarako ezarritako ECTS kredituen % 60tik gorakoa, betiere jakintza arloarekin zerikusia duten unibertsitate-irakaskuntzak egiaztatzen badira eta gaitasunak, ezagutzak eta ikaskuntzaren emaitzak antzekoak badira. (Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.10 artikulua)

7.3 IZAPIDETZE-PROZEDURAK

Hala nahi duen ikasleak matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari aurkeztuko dio baliozkotze-eskaera ikasturte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen edo, salbuespen gisa, matrikulatu eta 10 egunetara, baldin eta matrikulazioa epe horren bukaeran egiten bada. (Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua).

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatzi behar dituen baliozkotzeko eskaeren kasuan, ikastetxean eskaerak aurkezteko epea ikasturtearen lehenengo egunean hasi eta ikasturtearen azken egunean amaituko da. Ikasturte bakoitzeko urria bukatu aurretik aurkeztutako espedientei emango zaie lehentasuna. Aplikazioan sartzen diren eskaera guztiek sarrera-erregistroa izan behar dute. (1085/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua)

Lan-esperientzia justifikatuta enpresan edo erakunde parekidean egin beharreko prestakuntza-alditik salbuesteko eskaera **659/2023 Errege Dekretuaren 177.3 artikuluan** xedatutakoaren arabera egingo da: Gizarte Segurantzaren edo dagokion erakundearen ziurtagiria eta lan-kontratua edo enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, soldatapekoak, autonomoak, bekadunak edo boluntarioak diren kontuan hartuta.

Lehen aipatutako oinarrizko irizpide orokorrak betetzeaz gain, dagokion erakundeari honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio, izapidetu ditzan: (1085/2020 Errege Dekretua. 6. artikulua)

- Behar bezala betetako eskaera-orria, abenduaren 9ko 1085/2020 errege dekretuak V. eranskinean adierazitako antzeko ereduaren arabera (ikus dokumentu honen azken orrialdea).
- Eskaeran, baliozkotu nahi diren moduluen kodea eta izena espresuki adierazi beharko dira.
- Heziketa-ziklo bat egin izanaren ziurtagiri akademiko ofizial partziala edo osoa. EAEn 2015-2016 ikasturteetik aurrera egindako eta/edo amaitutako LHko ikasketak ziurtagiri digitalaren bidez baino ez dira egiaztatuko.
- Profesionaltasun-ziurtagiria edo uztailearen 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak (martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoak, ezarritako prozeduraren bidez lortutako gaitasun-atalen akreditazioen ziurtagiria.

- Eskatzaileak, lanbide-moduluak unibertsitate-ikasketekin baliozkotzea eskatzen badu, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko du:
 - Egindako irakasgaien programa ofizialen jatorrizkoa edo kopia soila, dagokion unibertsitate-zentroak behar bezala zigilatuta.
 - Unibertsitatearen ziurtagiria, ikasleak atxikitzen diren programak benetan ikasi eta gainditu dituela adierazten duena.
 - Egokia den beste dokumentazio baliagarri bat.

Eskaerak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan izapidetzea

Eskaerak EGOITZA ELEKTRONIKOAREN bidez bakarrik bidali beharko dira, jarraian adierazten diren urratsen arabera:

1. Ikastetxeak **berrikusiko du** eskatzaileak aurkezten duen **derrigorrezko dokumentazioa**, legeriak xedatzen duenera egokitzen den egiaztatuko du, eta, behar izanez gero, behar diren zuzenketak 10 eguneko epean aurkezteko eskatuko du (*otsailaren 26ko 32/2008 dekretuaren 27 bis 4 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez emandako idazkeran*). Zuzendariak horren berri emango dio ikasle eskatzaileari, prozedura ezesteko eskubidea gauzatzeko aukera izan dezan. Eskaera **zuzena bada**, eskaera Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren EGOITZA elektronikoan **erregistratzeko** prozesuari emango dio hasiera.
2. **Ikastetxeak zuzenean erregistratu behar du EGOITZA elektronikoan** Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatzi behar duen **baliozkotze-eskaera**. Horretarako, behar diren datuak bete eta aurkeztutako dokumentazioak markatuko ditu.

Ikasleen baliozkotze-eskaerak erregistratzen hasi ahal izateko, ikastetxeak lehenengo aldiz erregistratu behar du, eta, horretarako, ikastetxearen kodea eman eta pasahitz bat sartuko du. Prozedura zehatz-mehatz ezagutzeko, kontsulta ezazue eskaerak tramitatzeko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak egindako gida.

<http://www.educacionyfp.gob.es/eu/dam/jcr:98419623-5d43>

Era berean, ikasleak alta eman beharko du EGOITZA elektronikoan, ebazpenaren berri izateko eta haren eskaera zein egoeratan dagoen jakiteko, honako esteka honen bidez: <http://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=1484>. Horretarako, datuak bete eta IFZa eta pasahitz bat sartu beharko ditu.

3. Jarraian, ikastetxeak, eskaerarekin batera, **dokumentazioa atxikiko du, digitalizatuta** eta PDF formatuko fitxategi bakar batean, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministeriora bidaliko du EGOITZA elektronikoaren bidez. Ikastetxeak berrikusi eta digitalizatutako dokumentazio atxikia telematikoki konpultsatuko da

baliozkotze-prozedura honetarako. Inola ere ez du izapidetuko ezarritako dokumentazioa jasotzen ez duen eskaerarik.

4. Ikastetxeak berak digitalizatu ahalko du aurkeztutako dokumentazioaren PDF motako artxiboa edo, bestela, eskatzaileak zuzenean aurkez dezake idazkaritzan, ikastetxeko langileek egiaztatu ahal izateko moduko paperezko kopiarekin batera.
5. Ikastetxean eskaerak aurkezteko epea ikasturtearen lehenengo egunean hasi eta ikasturtearen azken egunean amaituko da. Ikasturte bakoitzeko urria bukatu aurretik aurkeztutako espedientei emango zaie lehentasuna.
6. Une horretatik bertatik, eskaera eta dokumentazioa Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariorde Nagusian jasoko dira, aztertu eta ebatzeko.

Ikastetxeek zuzenean jo dezakete baliozkotzei eta horien izapideei buruzko informazioa jasotzen duen beste esteka honetara:

<http://www.educacionyfp.gob.es/eu/servicios-al-ciudadano/catalogo/general/05/050210/ficha/050210>

Lanbide Heziketako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari egindako eskaerak izapidetzea

Eskumena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena bada, EAEko modulu propioen kasu, eskaera honako honi igorriko zaio:

Lanbide Heziketaren Plangintzaren Zuzendaritza, lurralde-ordezkaritzen bitartez.

7.4 EBAZTEKO PROZEDURA

Ikaslea matrikulatuta dagoen eta bere espediente akademikoa dagoen **ikastetxeko zuzendariari** egokituko zaio indarreko araudiak barne hartutako baliozkotzeen eta salbuespenen gaineko errekonozimenduari buruzko ebazpena emateko ardura. Ebazpena emateko hilabete bateko epea izango du, **eskaera egiten denetik hasita**. Interesdunari ebazpena berariaz eta legez jakinarazi gabe gehieneko epea amaituz gero, eskaera administrazio-isiltasunagatik ezetsizat hartu dela ulertu beharko da. (*Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27bis 3 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak emandako idazkeran*)

Ebaztea Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskumena bada:

- Eskatzaileak etengabe ikusi ahal izango du zein egoeratan dagoen bere izapidea eta ez du geroagoko informaziorik beharko. Eskaera ebatzi bitartean, derrigorrez joan behar du klasera eta egin beharko ditu ebaluazioak.
- Eskaera **ebazten denean, interesdunak mezu elektronikoko bat jasoko du**, ebazpena EGOITZA elektronikoko eskura duela eta deskarga dezakeela aditzera emateko. Halaber, informazio-izaerako kopia bat jasoko du ikastetxeak.

Ezinbestekoa da ikasleak baliozkotzeari buruzko ebazpena deskargatzea, gauzatu ahal izateko. Ondoren, matrikulatuta dagoen ikastetxean entregatu behar du, gauza dadin, eta hortik aurrera ez du lanbide-modulu horretako klasetara joan beharko.

7.5 BALIABIDEAK

1. Aurreko apartatuan aipatutako ebazpenaren aurrean gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango du interesdunak hilabete bateko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen** urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Errekurtsu hori honako hauen aurrean jarriko du:

- a) Ebazpena ikastetxeko zuzendariak ematen badu, errekurtsua Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren aurrean jarriko da.
- b) **Ebazpenak Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiak ematen baditu**, gora jotzeko errekurtsua idatziz eta erregistro ofizial baten bidez jarri ahal izango da.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko Errekurtsoen eta Auzitegiekiko Harremanen Zuzendariordetza Nagusiak ebatziko ditu Lanbide Heziketako Antolamendu eta Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiak emandako ebazpenen kontra jarri diren errekurtsuak. **Horretarako, ezinbestekoa da ebazpena eskatzaileak EGOITZATIK deskargatzea**. Idazkia hilabeteko epean bidali beharko da.

2. Gora jotzeko errekurtsuaren ebazpenak, organo eskudunak emandakoak, administrazio-bidea amaitzen du.

Sei hilabeteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpena jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsia izan dela ulertu ahal izango du eskaera egin duen interesdunak (*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikulua*)

7.6 BALIOZKOTZEETAN EDO SALBUESPENETAN ATZERA EGITEA EDO HORIEI UKO EGITEA

Atzera egin duela ulertuko da baliozkotzeari uko egiteko eskaera baliozkotze-eskaera ebatzi aurretik egiten duenean. **Ebazpena** Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren **eskumena bada**, ikastetxeko zuzendaritzak interesdunak eskaerari **uko egin diola** jakinaraziko dio Ministerioari, eta izapidea bertan behera geratuko da.

Baliozkotzea edo salbuespena ebatzi ondoren, interesdunak horri uko egin ahal izango dio, osorik edo partzialki, amaierako ebaluazioa egin aurretik.

Atzera edo uko egiteko prozedura ikaslearen eskariz abiaraziko da. Uko eginez gero, eskaera amaierako ebaluazioa egin aurretik aurkeztu beharko da. **Interesdunak horretarako idazkia aurkeztuko du.**

Zuzendariak aldeko ebazpena emango du atzera edo uko egiteko eskaeraren gainean, pertsonen eskubidea denez. Idazki hori ikaslearen espedientean sartuko da.

Kasu horietan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan ezarritakoa aplikatu da.

8. KAPITULUA. BALIOZKOTZEEN ETA SALBUESPENEN GAINKO IRUZKINAK ETA ÑABARDURAK

Erdi-mailako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak **Batxilergoko ikasgaiekin** baliozkotu ahal izango dira, ziklo horri buruzko arauak zehazten dituen baldintzetan.

- LOEren heziketa-zikloetako LPO/Enplegarritasuna I modulua baliozkotuko zaie Laneko Arriskuen Prebentzioko LOGSEren titulua aurkezten dutenei, titulu horrek barne hartzen baititu Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarrizko mailaren ziurtagiriko edukiak. *(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria)*
- LOGSEren tituluen barne dagoen “**Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea**” lanbide-modulua egiaztatzeak LOEren tituluen barne dagoen “**Enpresa eta Ekimen Sortzailea**” modulua baliozkotuko du, **edozein dela ere** titulua eta **horren maila. Inoiz ez alderantziz.** *(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren II. eranskina)*
- **Enplegarritasunerako ibilbidea I** osorik baliozkotuko da desagertutako Laneko Prestakuntza eta Orientabideko lanbide-moduluak egin badira. Baliozkotzea matrikula egin den Lanbide Heziketako ikastetxean eskatuko da. Ikastetxeak automatikoki ebatziko du, eta eraginpeko lanbide-moduluaren kalifikazioa aurreko prestakuntzaren espediente akademikoan agertzen dena izango da. Zenbakizko kalifikaziorik izan ezean, «baliozkotu» gisa erregistratuko da ebaluazio-dokumentu guztietan, eta «5»eko notarekin baliozkotuko da prestakuntza berriaren batez besteko notaren ondorioetarako. (659/2023 Errege Dekretuaren 126 eta 127. artikulua).

9. KAPITULUA. GAITASUN-ATALEN ETA LOE-REN LANBIDE MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA, HORIEK BALIOZKOTZEKO

Lanbide-heziketako tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuen 15. eta 16. artikuluek, erdi-mailako eta goi-mailako zikloi buruzkoek, hurrenez hurren, honako hau xedatzen dute: «Elkarrekikotasuna dago lanbide-moduluaren eta gaitasun-atalaren artean, egiaztapenari, baliozkotzeari edo salbuespenari dagokionez». Komeni da nabarmentzea aipatutako artikuluen 1. apartatuak gaitasun-atalaren eta tituluko irakaskuntzen barne dauden lanbide-moduluaren arteko elkarrekikotasuna ezartzen duela, horiek baliozkotzeko edo salbuesteko. Elkarrekikotasuna errege-dekretu gehien V. A) eranskinetan dago zehaztuta.

Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 6.3. artikulua arautzen du gaitasun-atal horien baliozkotzea.

GARRANTZITSUA:

Titulu bakoitza zehazteko errege-dekretuaren eranskinean gaitasun-atal baten baino gehiagoren eta modulu baten arteko elkarrekikotasuna ezartzen bada, **ezingo da gauzatu baliozkotze partziala.**

Horrenbestez, eskatzaileak egiaztatu ditzakeen **gaitasun-atalak** kontuan hartuz, ikastetxeko zuzendaritzak eskatzailea egiten ari den ikasketen titulua zehazteko errege-dekretuaren V. A) eranskinean (EAEko curriculum-dekretuaren kasuan, VI. eranskina da) araututako lanbide-moduluak baliozkotzeko ditu. **Horrenbestez, heziketa-zikloan matrikulatuta egotea eta betekizun akademikoak betetzea ezinbestekoak dira, matrikula egingo bada.**

Aipatutako errege-dekretu edo dekretu horien guztien eranskinei ohar osagarri bat gehitu ohi zaie, kasuko tituluaren euskarri edo oinarri diren beste lanbide-modulu batzuk baliozkotzeko aukera ematen duena.

LOEren babesean osatutako tituluaren eranskin honetan ezarritako elkarrekikotasuna **inola ere ez** da erabiliko kontrakoa egiteko; alegia, gaitasun-atalak ikastetxean egiaztatzeko. Gaitasun-atalak egiaztatzeko ardura, edonola ere, laneko agintaritzaren esku egongo da (ikus 9. apartatua).

10. KAPITULUA. LANBIDE-MODULUEN ETA GAITASUN-ATALEN ELKARREKIKOTASUNA, HORIEK EGIAZTATZEKO

Gogora ekarri behar da maiatzaren 3ko 2/2006 Legetik eratorritako tituluak ezarri eta horien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu gehienen V. B) eranskinak (edo, bestela, IV. B) eranskinak) arautzen dituela egiaztatu daitezkeen **gaitasun-atalak**, behin titulu jakin batean ezarritako lanbide-moduluak gaindituz gero.

Heziketa-zikloa amaitu gabe, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa aldi baterako utzi, eta ekoizpen-sisteman sartu edo enplegurako lanbide-heziketaren azpisisteman ikasi nahi duen ikasleari aplikatuko zaio nagusiki eranskin hori.

Eranskin hori aplikatu ahal izateko baldintzak honako hauek dira, batera bete beharko direnak:

- Gainditutako lanbide-moduluak LOEren tituluaren eranskinean zehaztutako taularen ezkerreko zutabearen agertuko dira.
- Egiaztatu daitezkeen eta LOEren tituluaren eranskinetako taularen eskuineko zutabearen ageritako den gaitasun-atalari loturiko lanbide-modulu guztiak gainditu izana.

Eranskin horretan ezarritako elkarrekikotasuna ez da inola ere erabiliko kontrako norabidean, **ezta modu horretan egiaztatutako gaitasun-atalen bidez beste ziklo batzuetako lanbide-moduluak baliozkotzeko ere.**

Zehaztapen horiek direla medio, bi elkarrekikotasun-taula egon behar dira (V.A) eta V.B) eranskinak); izan ere, hala ez balitz, zutabe bakarra legoke, edo, bestela, bi zutabe simetriko.

ERANSKINAK: MODULU-MOTEN ARABERAKO TAULAK

Baliozkotzeak edo salbuespenak eragin ditzaketen arrazoien zerrenda eta deskribapena.

	Interesdunak honako hauek ditu:	LOEren ziklo bateko moduluak BALIOZKOTZEKO trataera orokorra du.
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<p><u>Araudiak</u> baliozkotzeak BAIESTEN ditu –osoak edo partzialak–, interesdunak LOEren lanbide-moduluak gaindituta badauzka (ikasketa-egiaztagiri ofizial bat aurkeztuta) eta LOEren beste ziklo batean matrikulatzen bada.</p> <p><u>Erne:</u> Kode eta izen bera duen modulua bada, EZ da matrikula egin duen zikloan baliozkotutzat emango eta lortutako kalifikazioa kasuko modulura lekualdatuko da.</p>
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<p><u>Araudiak</u> baliozkotzeak BAIESTEN ditu –osoak edo partzialak–, interesdunak LOGSEren lanbide-moduluak gaindituta badauzka (ikasketa-egiaztagiri ofizial bat aurkeztuta) eta LOGSEren beste ziklo batean matrikulatzen bada.</p> <p><u>Erne:</u> Gogoan hartu beharrekoak: Interesdunak LOGSEren heziketa-ziklo osoa gainditu eta matrikulatu nahi den LOEren zikloarekiko baliokidetasuna aurkeztu badu, EZ da baliozkotzerik emango.</p>
C	LOGSE baino lehenagoko ikasketak	<p>Oro har, Teknikari Laguntzaileen (LHI) edo Teknikari Espezialisten (LHII) ikasketak aurkezten dituzten pertsonak izango dira. Kasu horietan, eta betiere ikaslea matrikulatu den zikloaren baliokidetzat jo izan ez diren LHko tituluak badira, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarria).</p> <p>LOGSEren aurreko ikasketen titulu horiek LOEren tituluren baten BALIOKIDE diren egiaztatzeke, ikus titulu bakoitzari buruzko errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria.</p>
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	<p>Profesionaltasun-ziurtagirik ofizialki egiaztatzen dituzte horien osagai diren gaitasun-atalak. Era horretan egiaztatutako <u>gaitasun-atalen</u> kasuan, moduluak baliozkotzea BAIETSIKO da, LOEren tituluen errege-dekretuen 5.a) eranskinak aplikatuta. Antzeko tratamendua dute egiaztapen partzial metagarriek.</p> <p><u>Erne:</u> Profesionaltasun-ziurtagiriaren edo egiaztapen partzial metagarriaren ofizialtasuna egiaztatu behar da. 34/2008 Errege Dekretua baino lehenagoko profesionaltasun-ziurtagirik EZ dute zuzeneko baliozkotzerik emango.</p>

E	Unibertsitateko ikasketak	<p>Gaur egun, EZ da <u>zuzeneko</u> baliozkotzerik ez salbuespenik aurreikusten heziketa-zikloetako lanbide-moduluen arloan.</p> <p>Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz ditzan.</p> <p><u>Erne</u>: Salbuespena dira atzerriko hizkuntzen gaineko moduluak (ingeleza), horietan modulu jakin batzuk unibertsitate-titulu jakin batzuen bidez baliozkotzea BAIETSI daitekeelako (dagozkien tauletan ageri dira).</p>
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	<p>EZ dago <u>zuzenean</u> baliozkotu daitekeenik.</p> <p>Atzerriko tituluaren kasuan, berariazko <i>homologazio</i>-prozedura jarraitu behar da: Titulu osoa ematean edo <i>baliozkotzean</i>: Aurkeztutako atzerriko tituluaren arabera, baliokidetzat jotako zikloko lanbide-moduluen baliozkotzeak ematean.</p> <p>Emaitzen agiri-euskarria egiaztagutunak izango dira. Egiaztagutun horiek eragina dute LOEren heziketa-zikloetan sartu eta matrikulatzeko (eta moduluak baliozkotzea eskatzeko) garaian.</p>
G	Ebaluatzeko prozedura eta gaitasuna egiaztatzea	<p>Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran aurkeztu izanaren ondorioz lortzen diren egiaztagiriak gaitasun-atalak egiaztatzeko baliozkoak dira. Horrenbestez, era horretan egiaztatutako <u>gaitasun-atalek</u> LOEren heziketa-zikloetako moduluak baliozkotzea BAIESTEN dute, D ataleko prozedura aplikatuta.</p>
H	Lan-esperientzia	<p><u>Enpresan egin beharreko prestakuntza</u> SALBUETSI ahal izango da.</p> <p>Ebidentzia osagarriak aurkeztuta, moduluren bat baliozkotzea eragin dezake (ikus aurrerago horren xehetasunak).</p> <p>Modalitate dualean heziketa-zikloren bat hasita edo amaituta duen ikaslea enpresan egin beharreko prestakuntza-alдитik SALBUETSITA egongo da.</p>

	Interesdunak honako hauek ditu:	LOE-REN LANBIDE-MODULU ESPERIZIFIKOAK baliozkotzeko aukera. (2/2006 Legearen babesean)
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren III. eranskina aplikatzea. Matrikulatutako LOEren zikloan ezaugarri horiek dituen zer modulu baliozkotu den kontuan hartu ahal izango da, baldin eta LOEren lanbide-modulu batzuk gainditu badira edo, hala dagokionean, beste heziketa-ziklo bat osorik gainditu bada. <u>Erne</u> : Kode eta izen bera duen modulua bada, EZ da matrikula egin duen zikloan baliozkotutzat emango eta lortutako kalifikazioa kasuko modulura lekualdatuko da.
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren II. eranskina aplikatzea. Matrikulatutako LOEren zikloan ezaugarri horiek dituen zer modulu baliozkotu den kontuan hartu ahal izango da, baldin eta LOGSEren lanbide-modulu batzuk osorik edo partzialki gainditu badira. <u>Erne</u> : Horiek hartu behar dira kontuan, baldin eta gaindituta duen LOGSEren modulua eta matrikula egin nahi duen LOErena ez badira baliokideak.
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko mota horretako moduluetan. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan, baldin eta LOEren zikloaren baliokidetzat jotzen den titulua ez bada.
D	Profesionaltasuneko ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	Titulu bakoitzaren Errege Dekretuan ezarritako V.a) eranskinaren arabera, ezaugarri horiek dituzten lanbide-moduluak baliozkotutzat joko dira, gaitasun-atal jakin batzuk egiaztatu eta bat.
E	Unibertsitateko ikasketak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten, betiere ez badira ezarritako prozeduraren bidez eskatzen. <u>Erne</u> : Gogorarazten da salbuespenak daudela atzerriko hizkuntzetako moduluetan.
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik emango mota horretako moduluetan. Gogorarazten dugu kasu hauetarako prozedura jakin bat dagoela; eskualde-ordezkaritzetan <i>homologazioa:baliozkotzea</i> egiteko eskaera aurkeztu behar da, atzerriko titulua egungo Lanbide Heziketako tituluekin parekatzeko.
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura	“D” apartatuko taula erabiliko da, ikasleak, gaitasun-atal jakin batzuk egiaztatzean, matrikula egindako zer lanbide-modulu baliozkotu ditzakeen zehazteko.
H	Lan-esperientzia	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko mota horretako moduluetan.

	Interesdunak honako hauek ditu:	<p style="text-align: center;">Baliozkotu daitezkeenak:</p> <p style="text-align: center;">LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA / ENPLEGAGARRITASUNA I LOEren erdi-mailako zikloa/goi-mailako zikloa</p> <p style="text-align: right;">(2/2006 Legearen babesean)</p>
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<p>LOEren ziklo batean, edozein direla ere adarra eta maila, Laneko Prestakuntza eta Orientabideko modulua gaindituta badu, edozein adar eta mailatarako LPO/Enplegarritasuna I baliozkotuko dira.</p> <p><i>(Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.4 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua, eta abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.6. artikulua/ 659/2023 Errege Dekretuaren 127.5 artikulua).</i></p>
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<p>LOGSEren ziklo batean, edozein direla ere adarra eta maila, Laneko Prestakuntza eta Orientabideko modulua gaindituta badu eta Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarriko mailaren egiaztagiria badu, edozein adar eta mailatarako baliozkotuko dira.</p> <p><i>(Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.3 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua, eta abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria/ 659/2023 Errege Dekretuaren 127.5 artikulua).</i></p> <p>Goi-mailako ziklo osoa gaindituta badu: Laneko Arriskuen Prebentzioa (adarra: Mantentze Lanak eta Produktiorako Zerbitzuak) edozein adar eta mailatarako baliozkotuko da <i>(abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria)</i></p>
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	<p>Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p> <p>Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	<p>Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>
E	Unibertsitateko ikasketak	<p>Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>

F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten modulu honetan.
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura	Tituluak barne hartzen dituen gaitasun-atal GUZTIAK , urtebeteko lan-esperientzia eta prebentzio-jardueren eginkizunak betetzeko oinarrizko mailaren prestakuntza jaso izana egiaztatuz gero (uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuarekin bat, martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), kasuko zikloko Laneko Prestakuntza eta Orientabideko modulua baliozkotuta izango du.
H	Lan-esperientzia	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

Interesdunak honako hauek ditu:	Baliozkotu daitezkeenak: ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA LOEren erdi-mailako zikloa/goi-mailako zikloa (2/2006 Legearen babesean)	
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaituak	<ul style="list-style-type: none"> • LOEren ziklo batean, edozein direla ere adarra eta maila, Enpresa eta Ekimen Sortzaileko modulua gaituta badu, edozein adar eta mailatarako baliozkotuko da (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.6 artikulua</i>) • Erdi-mailako graduko ziklo osoa gaituta badu: Administrazio kudeaketa edo Goi-mailako gradua: Administrazioa eta Finantzak (adarra: Administrazioa eta Kudeaketa) edozein adar eta mailatarako baliozkotuko da (<i>abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria</i>)
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaituak	<ul style="list-style-type: none"> • LOGSEren edozein ziklotako <i>Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea</i> modulua gaituta badu, EES edozein adar eta mailatarako baliozkotuko da. • Honako kasu hauetan BALIOZKOTZEN DA EES: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Saltoki txiki baten administrazioa eta kudeaketa</i>. Erdi-mailako gardua: Merkataritza (adarra: merkataritza eta marketina). - <i>Nekazaritzako familia-ustiapenen antolamendua eta kudeaketa</i>. Nekazaritzaren adarreko erdi-mailako edozein gradu. - <i>Administrazio-kudeaketaren ziklo osoa</i>. - <i>Astialdiko eta gizarte-heziketako jardueren enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa</i>: Goi-mailako zikloa: Animazio soziokulturala (Zerbitzu soziokulturalak eta gizartearentzako zerbitzuak). Jarduera fisikoen eta kirol jardueren animazioko goi-mailako zikloa (Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak). Goi-mailako zikloa: Animazio turistikoa (adarra: Ostalaritza eta Turismoa). - <i>Bidaia-agentzien antolamendua eta kontrola</i>. Goi-mailako zikloa: Bidaia-agentziak (adarra: Ostalaritza eta Turismoa) - <i>Jatetxeen administrazioa</i> Goi-mailako zikloa: Jatetxeak (adarra: Ostalaritza eta Turismoa) - <i>Ortoprotesietako unitate edo kabineteen administrazioa eta kudeaketa</i>. Goi-mailako zikloa: Ortoprotesika (adarra: Osasungintza) - <i>Hortz-protesietako kabinete edo unitateen antolamendua, administrazioa eta kudeaketa</i>.

		<p>Goi-mailako zikloa: Hortz-protesiak (adarra: Osasungintza).</p> <p><i>-Kabinete audioprotesikoen administrazioa eta kudeaketa</i></p> <p>Goi-mailako zikloa: Audioprotesiak (adarra: Osasungintza)</p> <p><i>-Nekazaritzako enpresen antolaketa eta kudeaketa</i></p> <p>Natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamenduko goi-mailako zikloa.</p> <p>Goi-mailako zikloa: -Nekazaritzako eta abelazkuntzako enpresen kudeaketa eta antolamendua (Nekazaritza)</p> <p><i>Administrazio eta finantzetako ziklo osoa</i></p> <p><i>(ikus abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren II. eranskina)</i></p>
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	<p>Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p> <p>Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
D	Profesionaltasun-zurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	<p>Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>

E	Unibertsitateko ikasketak	<p>Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten.</p> <p>Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariaren bidez bidali ahal izango da baliozkotze-eskaera, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	<p>Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten modulu honetan.</p>
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura	<p>Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten modulu honetan.</p> <p><u>Erne</u>: Titulu batzuetan, bere profileko gaitasun-atal GUZTIAK egiaztatuta baditu (uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera, martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak aldatua), eta, gainera, EAEn tituluak arautzen dituzten dekretuek ezarritako baldintzak betetzen badira (9. artikulua erdi-mailako zikloetarako eta 10. artikulua goi-mailako zikloetarako), EES modulua baliozkotzea eskatu ahal izango da.</p>
H	Lan-esperientzia	<p>Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>

	Interesdunak honako hauek ditu:	Baliozkotu daitezkeenak: 0156 LANBIDE-MODULUA LOEren erdi-mailako gradua/goi-mailako gradua(2/2006 Legearen babesean)
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	0179 LANBIDE-MODULUA gaindituta badu.
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<ul style="list-style-type: none"> • Atzerriko hizkuntzako modulua egin eta gainditua, ingelesa bada eta 65 orduko iraupena badu, tituluak ezartzeko errege-dekretuen arabera. • Atzerriko hizkuntzako goi-mailako heziketa zikloetako lanbide-moduluak, izena edozein dutela ere, betiere baliozkotu nahi denaren berdinak badira. <i>(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren II. eranskina)</i>
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
E	Unibertsitateko Ikasketak: Gradu-titulua edo baliokidea, Filologia Ingelesean edo Itzulpengintzan eta Interpretazioan (ingelesa). <i>(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua)</i>	BAI , baliozkotzen da.
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Zuzenean EZ dute baliozkotzerik eragiten modulu honetan.
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atala egiaztatzen badu.

H	Lan-esperientzia	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
I	<p>Bestelakoak: Ingelesko oinarrizko zikloaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa).</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingeles-maila ertainaren ziurtagiria (B1), hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) ▪ Ingelesko gaitasun-ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). ▪ Ingelesko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) ▪ Europako hizkuntzen esparruan ingeleseko B1 maila edo goragokoa egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7. artikulua) 	BAI , baliozkotzen da.

Interesdunak honako hauek ditu:		Baliozkotu daitezkeenak: 0179 LANBIDE-MODULUA LOEren goi-mailako zikloko INGELESA (2/2006 Legearen babesean)
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	Oro har, EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Hartu gogoan, lehenago ikasketa horiek hasi badira, gaindituta egon daitekeela: Ziklo berri batean matrikulatuz gero, moduluaren nota lekualdatuko da.
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Atzerriko hizkuntzako modulua (ingelesa) hasi eta gainditua. ▪ Atzerriko hizkuntzako modulua, ingelesekoa bada eta 90 orduko iraupena badu, tituluak ezartzeko errege-dekretuen arabera. ▪ Atzerriko hizkuntza Nazioarteko Merkataritzan, ingelesa bada. <i>(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren II. eranskina)</i>
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
E	Unibertsitateko Ikasketak: Gradu-titulua edo baliokidea, Filologia Ingelesean edo Itzulpengintzan eta Interpretazioan (ingelesa). <i>(Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua)</i>	BAI , baliozkotzen da.
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atala egiaztatzen badu.
H	Lan-esperientzia	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
I	<p>Bestelakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Europako hizkuntzen esparruan B2 maila edo goragokoa egiaztatzen duen edozein ziurtagiri. (Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua) 	BAI , baliozkotzen da.

	Interesdunak honako hauek ditu:	Baliozkotu daitezkeenak: 0180 LANBIDE-MODULUA LOEren goi-mailako graduako atzerriko bigarren hizkuntza (2/2006 Legearen babesean)
A	LOEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	Oro har, EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Hartu gogoan, lehenago ikasketa horiek hasi badira, gaindituta egon daitekeela: Ziklo berri batean matrikulatuz gero, moduluaren nota lekualdatuko da.
B	LOGSEren zikloetako irakaskuntza gaindituak	Goi-mailako graduako atzerriko bigarren hizkuntza , betiere baliozkotu nahi denaren berdina bada (<i>abenduaren 9ko 1085/2029 Errege Dekretuaren II. eranskina</i>)
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
E	Unibertsitateko irakaskuntzen gradu-titulua edo baliokidea, Filologian edo Itzulpengintza eta Interpretazioan (baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena). (<i>Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua</i>)	BAI , baliozkotzen da.
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura	BAI , baldin eta dagokion gaitasun-atala egiaztatzen badu.

H	Lan-esperientzia	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
I	<p>Bestelakoak: Oinarrizko zikloaren edo gaitasunaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa) (baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena).</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tarteko mailaren (B1) edo goragoko baten ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) (baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena). ▪ Europako hizkuntzen esparruan B1 maila edo goragokoa egiaztatzen duen edozein ziurtagiri, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena. (<i>Abenduaren 9ko 1085/2020 Errege Dekretuaren 3.7 artikulua</i>) 	BAI, baliozkotzen da.

	Interesdunak honako hauek ditu:	Baliozkotu daitezkeenak: E100 - INGELES TEKNIKOA (erkidegoarena) -ONARTUKO DIREN AZKEN IKASTURTEA- (2/2006 Legearen babesean)
A	LOEren ZIKLOETAKO irakaskuntza gaindituak	E200 modulua gaindituta badu. Entzuteko desgaitasuna dutenek osorik edo partzialki salbuetsita egotea eskatu ahal izango dute. Hartu gogoan beste ziklo bateko E100 modulua gaindituta izanez gero, baliozkotu beharrean, nota lekualdatuko dela.
B	LOGSEren ZIKLOETAKO irakaskuntza gaindituak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
C	LOGSEren aurreko ikasketa gaindituak.	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
D	Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
E	Unibertsitateko Ikasketak: Gradu-titulua edo baliokidea, Filologia Ingelesean edo Itzulpengintzan eta Interpretazioan (ingelese).	BAI , baliozkotzen da.
F	Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak	Arrazoi horrengatik EZ da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
G	Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzekeo prozedura	Titulu batzuetan ingeles teknikoko modulua baliozkotzeko eskatu ahal izango da, baldin eta 1224/2009 Errege Dekretuak (uztailaren 17koa, lanbide-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasun profesionalak aitortzeari buruzkoa) araututako prozeduraren bidez eskuratutako tituluari lotutako gaitasun-atal guztien egiaztapena aurkezten bada, eta, gainera, EAEn titulu bakoitza arautzen duten dekretuek ezarritako baldintzak betetzen badira (9. artikulua erdi-mailako zikloetarako eta 10. artikulua goi-mailako zikloetarako).

H	Lan-esperientzia	BAI, kasu honetan, 21 urtetik gorakoak salbuesteko arrazoia da, baldin eta 3 urteko lan-esperientzia badute, eta, curriculuma arautzeko dekretuaren bidez (1224/2009 Errege Dekretuaren prozedura) edo enplegurako prestakuntzaren bidez, gutxienez zikloaren iraupenaren % 50 osatzen duten gaitasun-atalak edo moduluak egiaztatuta edo gaindituta badituzte.
I	BAI, kasu honetan, heziketa-zikloan lehenengo aldiz matrikulatzen diren eta urte naturalean 45 urte betetzen dituzten eta hortik gorako pertsonak salbuesteko arrazoia da.	
J	<p style="text-align: center;">Bestelakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingeleseko oinarrizko zikloaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). ▪ Ingeles-maila ertainaren ziurtagiria (B1), hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) ▪ Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa). ▪ Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa) ▪ Europako hizkuntzen esparruan ingeleseko B1 maila edo goragokoa egiaztatzen duen edozein ziurtagiri (<i>otsailaren 26ko 32/2006 Dekretuaren 27.7 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua</i>). 	BAI, baliozkotzen da.

Ingeleseko lanbide-moduluen baliozkotzeak

EMANDAKO PRESTAKUNTZA	BALIOZKOTU BEHARREKO PRESTAKUNTZA
1/1990 Lege Organikoak araututako tituluen lanbide-moduluak	2/2006 Lege Organikoak araututako ingeleseko tituluen lanbide-moduluak
ERDI-MAILAKO GRADUA	
Atzerriko hizkuntza (65 orduko iraupena, Lanbide Heziketako tituluak eta haien gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituzten errege-dekretuen arabera). Egindako eta gainditutako atzerriko hizkuntza ingelesa bada.	0156.Ingeles profesionala.
Atzerriko hizkuntza edo autonomia-erkidegokoa. Egindako eta gainditutako atzerriko hizkuntza ingelesa bada.	0156.Ingeles profesionala.
Hizkuntzaren lanbide-moduluak. Goi-mailako heziketa zikloetako atzerriko hizkuntzak, izena edozein dutela ere, betiere baliozkotu nahi denaren berdinak badira.	0156.Ingeles profesionala.
GOI-MAILAKO ZIKLOA	
Atzerriko hizkuntza (ingelesa).	0179.Ingeles profesionala.
Atzerriko hizkuntza (90 orduko iraupena, Lanbide Heziketako tituluak eta haien gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituzten errege-dekretuen arabera). Egindako eta gainditutako atzerriko hizkuntza ingelesa bada.	0179.Ingeles profesionala.
Atzerriko hizkuntza Nazioarteko Merkataritzan. Egindako eta gainditutako atzerriko hizkuntza ingelesa bada.	0179.Ingeles profesionala.

Ingelesa duten heziketa-ziklo guztietarako

EMANDAKO PRESTAKUNTZA	BALIOZKOTU BEHARREKO PRESTAKUNTZA
1/1990 Lege Organikoak araututako tituluen lanbide-moduluak	2/2006 Lege Organikoak araututako ingeleseko tituluen lanbide-moduluak
0179.Ingeles profesionala.	0156.Ingeles profesionala.
Ingeleseko oinarrizko zikloko ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena. (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa)	0156.Ingeles profesionala.
Ingeleseko erdi-mailako zikloko ziurtagiria (B1), hizkuntza-eskola ofizialarena. (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa).	0156.Ingeles profesionala.
Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa).	0156.Ingeles profesionala. 0179.Ingeles profesionala.
Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialarena. (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa).	0156.Ingeles profesionala. 0179.Ingeles profesionala.
Gradu-titulua edo baliokidea, Filologia Ingelesez edo Itzulpen-gintzan eta Interpretazioan (ingelesez).	0156.Ingeles profesionala. 0179.Ingeles profesionala.

Lanbide Heziketako moduluak baliozkotzeko eskaera

DATU PERTSONALAK:

IFZ/NIE/Pasaportea: Izena:
Abizenak:
Helbidea:
Posta-kodea: Udalerria: Probintzia:
Tel. finkoa: Tel. mugikorra:
Helbide elektronikoa:

INSTITUTU EDO IKASTETXE ESKUDUNAREN DATUAK:

Izena:
Helbidea:
Posta-kodea: Udalerria: Probintzia:
Tel. finkoa: Faxa:
Helbide elektronikoa:

MATRIKULATUTA DAGOEN HEZIKETA-ZIKLOA:

(Marcar el que corresponda)

LOGSE
LOE

.....
GRADUA:

AURKEZTUTAKO IKASKETAK (Adierazi zeintzuk: LOGSE/LOE/Unibertsitateko ikasketak/Bestelakoak):

.....
.....
.....

ESKATUTAKO LANBIDE MODULUAK: (Izena akatsik gabe adierazi behar da. LOEren lanbide-moduluen kasuan, adierazi titulua ezartzen duen Errege Dekretuan zehaztutako kodea).

.....
.....

ESKATZAILEAREN SINADURA ETA DATA:

